*Udal agiria*
*A T A U N*

## ***INAZIO MUNDUATE ARRUABARRENARI OMENALDIA ETA LIBURUEN AURKEZPENA***

*Inazio Munduate Arruabarrenak hainbat ordu sartu zituen Ataungo artxibo historikoan herriko historia aztertzen eta dokumentuak biltzen. Bere asmoa noizbait ikerketa horiek liburu formatuan ateratzea zen eta horren garaia iritsi zaigu.*
*Ataungo herriak Inaziok behar bezalako omenaldia prestatu dugu, eta berak arakatutako dokumentuetatik sortu diren Alaitz Imaz Arrondok eginiko bi liburu esku artean ditugu.*

***Omenaldia.***
***Martxoaren 24an, igandean, izango da, 12:00etan Herri Antzokian,*** *eta bertara gonbidatu nahi zaituztegu (eserlekuak antzokiaren edukiera bete arte banatuko dira iritsi eran).*

***Liburuen banaketa.***
*"LEHENGO ETA ORAINGO ATAUN. XVI. mendetik XXI. mendera bitarteko lanbideak" eta "LEHENGO ETA ORAINGO ATAUN. Gerren zipriztinak" liburuak* ***martxoaren 25etik apirilaren 17rarte*** *banatuko dira bakoitza 5€tan udaletxeko bulego ordutegian:*

*Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara*
*Astearteetan arratsaldez, 17:00etatik 19:00etara*

*Bi liburuak www.ataun.eus web orrian jarriko ditugu digitalki.*

**SILO BOLAK EGITEKO ERABILTZEN DEN PLASTIKO BILKETA**

*Silo-bolak egiteko erabiltzen den plastikoaren bilketa zerbitzuaren datak jakinarazten dizkizuegu.*
*Bilketa hilean behin egingo da (hileko 3. asteartean) eta jadanik hilabete bakoitzeko egunak izendatuta daude:*

*2019 urtea*

*Martxoak 20*
*Apirilak 16*
*Maiatzak 21*
*Ekainak 18*

*Herrian bilketa puntuak ondorengoak dira:*

*Otadi Zelai baserrian, Ataungo herrirako bidean.*
*San Martin (mediku etxe atzean).*
*Suki zeharrean, Saltxeberri baserrirako bidegurutzean.*
*Arrateta aldean (Agerrerako bidegurutzean).*
*San Gregorio, Intxaustiko zubian.*
*Lauztierreka (Arratiñe bidegurutzean) eta Lauztiturrieta baserrian.*

*Oharrak:*

*- Birziklatzeko arazoak ematen dituztenez, plastikozkoak ez diren sokak ez ateratzea eskatzen da; plastikozko bidoirik ere ez.*
*- Plastikozko sokak, beste plastikoetatik bereizituz, aparte atera behar dira, BI MULTZO EGINEZ, BATEAN PLASTIKOA, BESTEAK SOKAK.*
*- Mineralen zakuak atera ahalko dira, denak zaku batean sartu eta muturra sokatxo batez itxita.*
*- Mesedez plastikoak bezperatik atera (astelehenean) eta ez beste edozein egunetan.*
*Argitasun gehiago nahi izanez gero, deitu GOIMENeko 943 16 12 44 telefonora edo Udaletxera bertara.*

*Ataunen, 2019ko martxoaren 12an*
*ALKATEA,*

ATAUNGO UDALA